

Apelliduak abizendu!

hobe zuk ere egingo bazendu!!!

Zein hizkuntzatan dituzu idatzita abizenak nortasun agirian?

Ez al duzu inoiz pentsatu euskaraz idaztea zure abizenak?

Nola eman nahi dizkiezu seme-alabei zure abizenak?

Orain oso erraz alda ditzakezu zure abizenak euskarazko grafia! ANIMA ZAITEZ!

ZEIN DOKUMENTU AURKEZTU

- Eskaera-orria behar bezala beteta (udaletxeko bulego orokorrean, bake-epaitegian edo www.anoeta.net web orrian lor dezakezu)
- Errolda-ziurtagiria (udaletxeko bulego orokorrean eskatu)
- NAN edo pasaportearen fotokopia
- Hitzek hitzeko jaiotza-ziurtagiria (dagokion erregistro zibilean)
- Familia liburu osoaren fotokopia (ezkonduta egonez gero edota haurrak izanez gero)

NON AURKEZTU

Udaletxeko Euskara Zerbitzuan (astelehen, asteazken eta ostiraletan - 9:00-15:00)

ZEIN PAUSO EMANGO DITUGUN

1. Eskatzailearen dokumentazioa bildu eta bake-epaitegian tramiteak hasiko ditugu.
2. Hilabete batzuetara aldaketa idazten dute jaiotza-liburuan, ezkontza-liburuan eta adin txikiko seme-alaben jaiotza-liburuetan.
3. Eskatzaileak jaiotza- eta ezkontza-ziurtagiri berriak eskatu beharko ditu.
4. Eskatzaileak dagokion erregistrora jo beharko du familia-liburuarekin, ezkontza-orrian eta seme-alaben orrietan aldaketak erregistra ditzaten.
5. NAN berria eskatu beharko du.

